

## SELEK 2022 DISOLBAGARRITASUNA / HAUSPEAKETA

### SELEK 2022 EKAINA A MULTZOA

A3.- Zilar kromatoak uretan duen disolbagarritasun-biderkadura  $K_{ps} Ag_2CrO_4 = 4.10^{-12}$  da  $25^{\circ}C$ -an eta zilar kloruroak duena  $K_{ps} AgCl = 1,8.10^{-10}$ .

- Kalkulatu zenbat gramo zilar kromato disolbatzen diren 0,5L uretan  $25^{\circ}C$ -an.
  - Beste 0,5L disoluzio prestatzen dira ura zilar kloruroarekin asez  $25^{\circ}C$ -an. Kalkulatu zenbat gramo zilar dituen disoluzioak.
  - Aurreko bi disoluzioetatik zeinek du zilar disolbatu gehien?
  - Bi gatz horietatik, zein da disolbaezinena gramo/L-tan?
- ( Emaitzak:  $0,017g$  ;  $7,22.10^{-4} g$  ; Zilar kromatoak ;  $AgCl$  )

### SELEK 2022 UZTAILA A MULTZOA

A3.- Ur disoluzio batek  $Sr^{+2}$  ioia  $1,0.10^{-3} M$  eta  $Ca^{+2}$  ioia  $2M$  ditu. Poloki-poliki, sodio sulfato solidoa gehitzen zaio, uretan disolbagarria baita (joko dugu disoluzioaren bolumena ez dela aldatzen). Estrontzio sulfatoaren eta kaltzio sulfatoaren  $K_{ps}$  balioak  $7,6.10^{-7}$  eta  $2,4.10^{-5}$  dira, hurrenez hurren. Kalkulatu:

- Lehen ioiaren hauspeatzen hasten den unean zer sulfato-kontzentrazio izango den disoluzioan eta zein izango den ioi hori.
  - Lehen hauspeatu den ioiaren kontzentrazioa bigarren ioia hauspeatzen hasten den unean.
- ( Emaitzak:  $SO_4^{-2} \rightarrow 1,2.10^{-5} mol/L$  eta  $Ca^{+2}$  lehenengoa ;  $Ca^{+2} \rightarrow 0,032M$  )